



aralar



EzkerBatua

ELKARLANEAN

Izquierda Vasca/Euskal Herria Ezkerretik
Justizia Soziala, Bakea eta Autodeterminazioa

**EZKER BATUA BERDEAKen ETA ARALARREN ARTEKO
KOALIZIOAREN ADIERAZPEN POLITIKOA ETA PROGRAMAKO
ARDATZAK, 2007ko UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEETARAKO**

“Ezker anitzaren batasunean aurrera egitea bermea da bakeari,
normalkuntza politikoari, elkarbizitzari, aurrerapenari eta justizia sozialari
begira”

AURKEZPENA

2007ko udal eta foru hauteskundeetan, Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren arteko koalizioa osatzen dugun bi alderdi politikook euskal ezkerren eremua ordezkatu nahi dugu legezkotasunez, boto progresista eta ezkerreko botoa uztartzeko asmoz, gizarte honek bere etorkizunari buruz bakean erabakitzeko daukan eskubidea defendatzen du-eta. Hori dela eta, gure hauteskunde-koalizioak euskal gizarte osoari proposatzen dio proiektu politikoa eta soziala eratzeko. Horiek horrela, itxaropena eta ilusioa sortuko ditugu, indarkeria gainditzeko, hiritarrei euren etorkizunari buruz erabakitzeko eskubidea onartzen dien benetako normalkuntza politikoa lortzeko eta udaletan zein aldundietan ezkerren eguneroko lanaren aldeko apustua egiteko.

Jakin badakigu orain hartzen dugun konpromisoak ezkerreko botoa mugituko duela, erreferente garbiaren premia duelako gure herrialdean. Horrez gain, bakea eta normalkuntza politikoa eraketa sozialarekin bateratzea izango du helburu. Jakin badakigu euskal gizartea ezkerre samarra dela eta behar besteko heldutasuna eta erantzukizuna dituela, bere etorkizunari buruz erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko eta, aldi berean, erakundeei aurrerapenerako eta gizarte-kohesiorako politiken aldeko apustu irmoa egitea eskatzeko. Era berean, nortasunari buruzko eztabaida lehentasunezkoa izan denez, jakin badakigu politika kontserbadoreek luzaroan egin dutela aurrera eta gure erakunde askotako jardunean inposatu direla.

Ezker Batua Berdeak eta Aralar bi alderdi politiko independente dira, eta euren proiektu politikoak dituzte (batarena federalista da; eta bestearena, independentista). Dena dela, jakin badakite desberdinen arteko hitzarmenari esker eta bien arteko batasunaren bidez euskal ezkerre sendotuko dela. Euskal ezkerrek, gainera, nortasunari buruzko eztabaidan bat egiten du erabakitzeko daukagun eskubidea defendatzen duelako.

Bestetik, euskal ezker irekia bezain anitza da, eta gure gizarteak erabakitzeko daukan eskubidea errespetatzen du. Desberdinen arteko hitzarmenaz ari gara, eta ahaleginak bateratu nahi ditu, ezkerreko eremu politikoa eskaintzeko eta, lekukotasun hutsetik haratago, gure udal eta batzar nagusietako eguneroko politikan eragina edukitzeko.

Desberdinen arteko hitzarmen hau sinatu ahal izan dugu, oinarrizko hiru printzipio partekatzen ditugulako:

» Konpromiso politiko eta soziala daukagu ezkerren balio eta printzipioekin. Gainera, erreferentetzat hartzen ditugu, pertsona guztien arteko eskubide-berdintasunaren alde lan egitean eta justizia soziala bermatzean. Horretarako, aberastasuna berdintasunez birbanatzeko jarduketak sustatzen ditugu.

» Apustu argia egiten dugu politikaren alde, bide politiko eta demokratikoen eskusibotasunaren alde ez ezik, politikaren beraren alde ere bai, bere dimentsio osoan hartzen dugulako kontuan. Gure ustez, aurkari politikoari kalte egiten dion edozein metodo gaitzestea, benetako aukerak proposatzea eta, beharrezkoa izanez gero, beste batzuekin hitzarmenak bilatzea da politika egitea. Horiek horrela, ezkerretik eduki ahal izango dugu eragina gure eguneroko bizimodua baldintzatzen duten erabaki politikoetan.

» Euskal Herriko gizarteak bere nortasuna eta bere etorkizunari buruz erabakitzeko eskubidea dituela onesten dugu. Naturaltasunez onartuko dugu herri hau eta gizarte hau bertako hiritarrok erabakitzen duguna izango dela une bakoitzean. Printzipio hori, gainera, Ezker Batua Berdeak-en federalismotik eta Aralarren independentismotik adierazita dago.

Aldi berean, desberdinen batasunak hautesle progresistak eta, batez ere, gazteak inplikatuko ditu, gure hauteskunde-mapan ez dutelako euren interesen arabera boto-aukerarik aurkitzen.

Hori dela eta, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek erantzukizunetik eta hiritarrekiko konpromisotik bultzatzen dugu koalizio hau. Une oro, estrategia alderdikariei barik, guztion onurari eman diogu lehentasuna. Mugitu egin gara, eta aukera itzaropentsua eskaini dugu, euskal politikan luzaroan nagusi izan diren immobilismoaren eta larregizko gelditasunaren aurrean. Apustu honek, hain zuzen ere, banan-banan edo taldean gure helburuekin bat datozen sentsibilitate guztiak erakarri nahi ditu. Herrialde honek ezkerreko aukera sendoa, eraldatzailea behar du, XXI. mendeko erronka politiko, ekonomiko, ekologiko, sozial eta kultural berriei aurre egiteko.

Inolako zalantzarik gabe, Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren arteko koalizioak 2007ko udal eta foru hauteskundeetan ordezkatzeko duen ezkerak bere lekua dauka euskal politikan eta hauteskundeetan, eta, aldi berean, hausnarketa sakonagoaren hasiera izan daiteke; esate baterako, nola berreratuko dugun ezkerre gure historiako etapa berri honetan. Ere hori berreratzeko, oinarri sendoak eduki behar dira eta ahalegin anitzak uztartu behar dira, ezkerre bere aniztasun osoa indartu eta zabaldu ahal izateko. Horrela, benetako gobernu-aukera eskaintzeko gai izango gara (epe ertainera eta etorkizunean antzeko helburuak dituzten beste batzuekin batera).

Praktikan, bi alderdi politikoen elkarlanari esker, antzeko xedeak ditugun eremu politikoa zabalduko dugu. Horra hor erabakitzeko daukagun gaitasunaren onespena, autodeterminaziorako eskubidearen onarpena eta sindikatuek, ingurumen-arloko mugimenduak, mugimendu feministak, solidarioak, globalizazioaren aurkakoak eta euskararen normalkuntzaren aldekoak etengabe egindako aldarrikapenen defentsa.

Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren arteko koalizioak erakunde-agerpen adierazgarria lortu nahi du 2007. urtean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko udal eta aldundietako mapa politikoa baldintzatzeko eta udal zein foru gobernu progresistak sustatzeko. Hala ere, horrek ez du esan nahi kaleko lana eta hiritar aktiboek, asaldarien eta kritikoen eraketa alde batera utziko dituenik. Zentzu horretan, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek geure udal zein foru programetan hartuko ditugu kontuan elkarre ezkeriarren eta gizarte-mugimenduen eskariak eta asmoak. Horrez gain, eskari nahiz asmo horiei eutsiko diegu instituzio guztietan, bakoitzean daukagun esparruaren eta erantzukizunaren arabera, eta jarduketara bateratu guztiak honako HIRU printzipio inspiratzaileetan oinarrituta egongo dira:

- » Justizia sozialaren eta aurrerapen-balioen defentsa.
- » Giza eskubideak eta bide politikoen eksklusibotasuna.
- » Elkarrizketa demokratikoa eta erabakitzeko eskubidea.

PROGRAMAKO ARDATZAK

A) KOHESIO SOZIALA ETA GIZARTERAPENA

Indarkeriak berrogei urte baino gehiago dirauenez eta gatazka politikoa konpondu gabe dagoenez, gizarte-ereduari buruzko eztabaida ezkutatu egin da batzuetan. Euskadin, jarduera politikoa indarkeriaren, bere ondorioen eta estatu-ereduaren inguruan garatu da beti. Hori dela eta, sarriegitan bigarren mailan utzi dira gure eguneroko bizimoduan hainbesteko eragina daukaten gaiak. Ezinbestekoa da bizi-kalitatean, pertsonen garapenean eta gizarte-desberdintasunen gaindipenean eragina duten gaiak behar besteko lehentasuna ematea agenda politiko eta sozialean.

Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren arteko hauteskunde-koalizioak aurrerapen-aukera moduan eratzea eta ikustea eta bere helburuak eskubide sozial eta ekonomikoen berreskurapena eta defentsa eta bakerako zein normalkuntza politikorako eskubideak izatea.

Ezkutuan egon diren gaiak ekarri nahi ditugu eztabaida politikora; esate baterako, kalitateko zerbitzu publikoak, iraunkortasun ekologikoa, genero-berdintasuna, bizitza publikoko partaidetza eta gardentasuna, gehiengoaren ongizatearen zerbitzura dagoen eredu ekonomiko eta sozialaren garapena eta premia gehien dituzten taldeentzako atentzioa (euren artean, menpetasuna dutenentzako eta adinekoentzako atentzioa). Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren ustez, behar besteko lehentasuna eman behar zaie gaiak, eta ez dira bakearen zein normalkuntzaren lorpenaren baldintzapean egon behar.

Hona hemen gure gizarteak hurrengo urteetan izango dituen erronka handienetakoak: eskubideak eskaintzen dituen enplegu egonkorra eta prezio eskuragarria duen etxebizitza duina, ingurumena errespetatzen duen garapen iraunkorren oinarritutako gizarte-egituraren esparruan. Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek agerian utzi dute erronka horietan bat datozela, gure erkidegoko Lurzoruaren Legea babestu dutenean, tren sozialaren aldeko alternatiba aurkeztu denean, Garapenari eta Lankidetzari buruzko Legeria eratu denean eta beste ekimen asko garatu direnean. Izan ere, gizartearen eskariei erantzutea daukate helburu, hori egin ezean, ez dagoelako erabat demokratikoa den gizarte egiturazterik. Era berean, laneko ezbehar-tasari aurre egitea ere bada lehentasunezkoa gure konpromisoen artean.

Proiektu neoliberalerako pribatizazio-teorien aurrean, administrazio publikoaren zeregina aldarrikatzen dugu, aberastasunaren birbanaketa bidezkoa dela bermatu behar duelako, plangintza estrategiko publikoan eta zerga-politika gehikorrean oinarritutako eredu ekonomiko iraunkor bezain solidarioaren bidez. Gure ustez, zerga zuzenen gehikortasuna eta zeharkakoen aldean daukaten nagusitasuna berreskuratu behar dira, justifikatutako zerga berriak erabateko gardentasunaz ezarri behar dira kapitulu ekologikoan, BEZko zerga-tasak murriztu behar dira lehen premiako zerbitzuetan eta zerga-iruzurraren aurkako borroka irmoa izan behar da, benetan solidarioa eta eraginkorra den politika soziala garatu ahal izateko.

B) GIZA ESKUBIDEAK

Koalizio hau sinatzen dugun bi alderdi politikook giza eskubideen defentsarekin daukagun erabateko konpromisoa berresten dugu. Ez dago bake-prozesua sustatzerik eta demokrazian sakontzerik, gainerako giza eskubideetan oinarrituta ez badaude. Ez dago normalkuntza demokratikoa lortzerik, giza eskubideetan oinarrituta egon ezean.

Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek giza eskubideen defentsan oinarritutako eta eskubide horiekin lotura zuzena daukaten eskubide politiko eta zibilen aldeko apustua egiten dugu. Izan ere, giza eskubideak defendatu ezean, jakin badakigu eskubide zibil eta politikoen defentsa ahuldu egiten dela.

Era guztietako indarkeriaren behin betiko desagerpenak legezkotasuna ematen digu, proiektu politiko guztien onespén politiko eta juridikoa irmo eta bete-betean defendatzeko.

Gure testuinguru politikoan, inoiz baino ezinbestekoagoa da giza eskubideen defentsa nabarmentzea, eta Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek gogotsu eta irmo eusten diogu defentsa horri arlo guztietan.

C) BAKERAKO ESKUBIDEA

ETAk 2006ko martxoaren 22an iragarritako su-etenaren ondoren hasitako bake-prozesuak ez du uste bezalako emaitzarik eman, eta, testuinguru horretan, abenduaren 30ean Barajasko aireportuan egindako atentatuak euskal hiritarren artean sortutako itxaropena eta ilusioa zapuztu ditu berriro. Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek beti defendatu dugu benetako bake-prozesua era guztietako

indarkeriaren, kale borrokaren, estortsioaren eta mehatxuen desagerpenean oinarrituta egon behar dela. Era berean, elkarrizketa demokratikoaren bidetik aurrera egiteko borondate zintzoan eta elkarbizitza anitzerako bermea izango diren errespetuan eta elkarrekiko onespenean ere oinarrituta egon behar da.

Euskal gizarteak indarkeriaren gaineko benetako garaipena lortuko du, giza eskubideen defentsarako uste etiko sendoak dituelako eta elkarrizketa demokratikoaren aldeko uste politiko sendoak dituelako. Era berean, espetxe-politika ere gizatiartu beharra dago. Gizarte heldua gara eta badakigu nola eratu nahi dugun geure etorkizuna. Beraz, ez dugu behar inork bidea zehaztea eta ordezkatea, erabakitzeke eskubidea gizarte osoari dagokiolako.

Bakerako eskubidea gurea den benetako giza eskubidea izan behar da. Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek behin eta berriro diogu bakearen alde lan egiten jarraituko dugula kasu guztietan eta edozein inguruabarretan, ETaren jarrera edozein dela ere. Madrileko atentatuak bake-prozesua hautsi du, baina euskal gizarteak bakea eskatzen du oraindik, bakearen aldeko apustua egiten du berriro, eta hitzarmen hau sinatu dugun indar politikook ez diogu huts egingo. Bake-prozesua hautsita egonda ere, inoiz baino beharrezkoagoa da bakea, eta, behin betikoa izateko, elkarrizketan eta adostasunean oinarritu beharra dago.

2007. urteko udal eta foru hauteskunderi begira hauteskunde-koalizio hau sinatzen dugun bi alderdi politikook badakigu bake-prozesu guztietan lehenengo eta behin era guztietako indarkeria desagertu behar dela behin betiko inolako ñabardurarik, baldintzarik eta ordainik gabe. Bigarrenez, ezinbestekoa da inplikaturako alderdi guztiek distentsio-neurriak hartzea. Prozesuaren amaiera giza eskubideen errespetuan eta helburu politikodun indarkeriaren erabileraren gaindipenean lekurtzen dugu. Modu berean, biktimak bete-betean onetsi behar dira eta jasan dituzten kalteak ordaindu behar zaizkie. Bestetik, presoan egoera konpondu beharra dago, gure inguruko beste bake-prozesu batzuetan egin duten bezala; Irlandan, esaterako.

Giza eskubideen defentsarekin eta sentsibilitate zein ideologia guztien errespetuarekin daukagun konpromisoak ematen digun legezotasunetik, Ezker Batua Berdeak eta Aralar indarkeriaren behin betiko desagertpenaren eta proiektu guztien onspen politiko eta juridikoaren alde gaude. Zentzu horretan, unea iritsita eta inolako atzera bueltarik egongo ez dela bermatuta, berriro diogu estatuak

eta ETAk armak uzteko prozesuaren eta presoen zein errefuxiatuen egoeraren inguruan negoziatu behar dutela. Horrez gain, euskal gatazka konpontzeko bidetzat hartutako elkarrizketa demokratikoa protagonista nagusiak garen euskal hiritarren eskumena da eta, gure izenean, instituzioena eta gure ordezkari politiko eta sozialena.

D) NORMALKUNTZA POLITIKOA

Normalkuntza politikoa gure gizartearen legezko asmoa da, eta ez dago indarreko ordenamendu politiko eta juridikoaren irakurketa eta/edo interpretazio murriztailearen bidez mugatzerik. Herriek, bertako biztanleek eta euren ordezkariak diren instituzioek baino ez dute behar besteko eskumenik, autogobernuari eta bizi-kalitateari begira egin beharreko aldaketak sustatzeko orduan.

Normalkuntza politikoa premisa honetan oinarrituta dago: normalkuntza politikoa lortu gabe dago oraindik. Euskal gizartea hitzarmen bateratzailearekin irten behar da normalkuntza politikorako prozesua izan behar den elkarrizketa demokratikotik. Horrela, gaur egungo egoera gainditu ahal izango da, eta erabakitze eskubidea onestea, ordenamendu juridiko eta politikoan kontuan hartzea eta eskubide hori herri-galdeketa bidez erabiltzea aldarrikatzen dugunoi erantzuteko. Hitzarmen horretan, adostasuna lortu behar dugu guztiok. Bertan, autonomistok, federalistok, independentistok... aukera berberak izan behar ditugu, geure proposamen politikoak egiteko eta, jarrera demokratikoetan oinarrituta, proposamen horiek garatzeko.

Bestetik, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek Alderdien Legea indarririk gabe uzteko eskatzen dugu. Arau hori PSOEek eta Alderdi Popularrak sustatu zuten, besteak beste. Jatorri-jatorritik, demokraziaren aurkakoa izan da, eta “oztopo” handiak jarri ditu bakea eta normalkuntza politikoa lortzeko bidean. Indarrean dagoenez, estamentu judizial, alderdi politiko eta gizarte-talde batzuek argudio moduan erabiltzen dute, Batasunarekiko elkarrizketa arautua eragozteko edo, gutxienez, zailtzeko. Batasuna, hain zuzen ere, solaskidea izan behar da, euskal gizartearen zati baten ordezkaria delako, nahiz eta eragiteko eta erabakigarria izateko duen gaitasunak lotura estua eduki bide baketsu zein demokratikoen defentsarekin eta indarkeriaren gaitzespenarekin. Alderdi Politikoen indarreko Legea atzerapen demokratikoa izan da, eta egiaztatu egin daiteke Europako demokrazia sendotuen testuinguruan homologagarria ez dela eta ondorio kaltegarriak eragiten dituela normalkuntza prozesuan eta, horren ondorioz, bakegintzan bertan.

Guztiok aukera berberak eduki behar ditugu, proposamen politikoak egiteko eta, printzipio demokratikoetan oinarrituta, proposamen horiek garatzeko. Beraz, normalkuntza politikoa erdiesteko, erabakitze eskubidea lortu beharra dago. Alderdi politikook ahalik eta adostasun zabalena bilatu behar dugu horretarako sortu beharreko foroetan. Horretarako, funtsezkoa da normalkuntza politikorako lana guztion zeregina izatea, baldintzak hitzartzea eta egutegia adostea. Hitzarmenaren bila jesartzeak ez dauka inolako zerikusirik aukera politikoarekin, erantzukizun politikoarekin baizik.

Gogoan izan behar dugu herrialde honetako hiritarren aurrean erantzun behar dugula, erabaki-subjektuak direlako. Ahalik eta adostasun zabalena bilatu behar dugu, eta, ondoren, proposamen zehatza eskaini behar diegu hiritarrei, erreferendumean onartu edo gaitzetsi dezaten. Beraz, alderdi politikoen artean lortzen duen babes-maila edozein dela ere, normalkuntza-prozesuan erdietsitako hitzarmenak hiritarren berrespena eduki beharko du.

E) ELKARRIZKETA DEMOKRATIKOA

Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek alderdi politiko guztien arteko elkarrizketa demokratikoaren aldeko apustua egiten dugu une oro eta inolako salbuespenik gabe, ETAk unean-unean garatutako jarduketak edo hartutako erabakiak edonolakoak direla ere. Dena dela, bidezkoa da onartzea indarkeria behin betiko desagertzen denean baino ez dagoela elkarrizketa demokratiko erabakitzailerik garatzerik. Horren ondorioz, elkarrizketa demokratiko erabakitzailerik horren adierazpide izango den normalkuntza politikorako mahaia errealitate eraginkorra izan dadin, inolako ñabardurarik, baldintzarik eta ordainik gabe desagertu beharko da terrorismoa.

Horra iritsita, normalkuntza politikorako mahaian edo foroetan alderdi guztiak egon beharko dira inolako salbuespenik gabe. Izan ere, hitzarmenerako baliozko bide bakarra izango da, eta euskal hiritarrek erabakitze duten eskubidea onartu beharko du ezinbestean, ordenamendu juridiko eta politikoan kontuan hartu beharko du eta herri-galdeketa bidez erabili beharko du eskubide hori. Alde horretatik, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek koalizio honetan ordezkaturako euskal ezkerrek zeregin aktiboa eduki behar du, eta ekimenaren bultzatzailea izan behar da. Indarkeria aringarri gabe gaitzesten dugunez eta giza eskubide guztien defentsarekin eta bizitzaren, osotasunaren zein askatasunaren errespetuarekin konpromisoa dugunez, legezkotasun osoa daukagu. Era berean, herri-galdeketa babesten dugu berariaz, hiritarren borondatearen adierazpidea da-eta. Hain zuzen ere, hiritarrak eurak dira Euskadiko Autonomia Erkidegorako normalkuntza politikoaren eredia nolakoa izango den zehazteko legezkotasuna daukaten bakarrak.

Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek badakigu zeinen zaila den normalkuntza politikorako mahaia eratzea. Beraz, norabide horretan lan egin behar dugula berresten dugu. Horretarako, erakunde-arloko ulermena eta beharrezkoak diren ekimen politiko eta sozial guztien inguruko adostasuna sustatu behar dira, bakea eta elkarrizketa demokratiko erabakitzailea bultzatu ahal izateko. Horri dagokionez, hurbiltzeko bideak arakatu behar dira, eta, aurretiko hitzarmenak lortu behar dira, erabakitzeko eskubidea onartzeko, ordenamendu juridiko eta politikoan kontuan hartzeko eta eskubide hori herri-galdeketa bidez erabiltzeko. Horiek horrela, normalkuntza politikorako mahaian onartu eta berretsi ahal izango da.

F) ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren ustez, erabakitzeko eskubidea demokrazian eta askatasunen araubidean sakontzeko jarduna da. Hiritarrek bizitza publikoan parte hartzeko eskariei erantzuten die, eta bat dator ezkerren ideologiarekin. Hori dela eta, ez da ez ETaren ez Batasunaren ondarea, hiritar gehienek eskaria baizik. Gai horri eusteko unea iritsi da, aukera eta ideologia guztiak errespetatuta. Izan ere, eskubide hori onetsi behar dugu, ordenamendu politiko eta juridikoan kontuan hartu behar dugu eta erreferendum bidezko herri-galdeketa bitartez erabili behar dugu, gure hiritarren gizarte-borondatea delako, eta, ez, ETak edo Batasunak proposatzen duelako.

Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren iritziz, erabakitzeko eskubidea ez da estatuko beste herri batzuekin etorkizunean eduki beharreko harremanen arlo mugatzen. Zentzu zabalagoan aldarrikatzen dugu, eta, bertan, hiritarren interesetan eragina daukaten gai guztiak agertzen dira. Alderdi politikoari eta etikoari begira, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek osatzen dugun hauteskunde-koalizioak era guztietako gaiei buruzko gizarte-proposamenak entzun behar ditu eta erantzun egin behar die.

Besteak beste, euskal hiritarrek honako gai hauei guztiei buruz askatasunez erabakitzeko eskubidea izan behar dute: Abiadura Handiko Trena, zentral termikoak, erraustegiak, azpiegitura handiak, zerbitzu publikoen privatizazioa... Hiritarrendik hurbilen dauden erakundeak direnez, foru-aldundiek eta udalek sistema hori sustatu behar dute, eta loteslea izan beharko litzateke. Horri dagokionez, guretzat kezagarria da batzuentzat eskubide horren onspena asmo demokratikoa izatea eta, ondoren, estatu-ereduarekin zerikusia daukan eremu politikoan bakarrik erabiltzea.

G) HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA

Euskara Euskal Herriko hizkuntza denez, bere ezagutza eta erabilera sustatu behar ditugu, pertsonen arteko komunikazio-bidea da-eta. Herri honetako erakunde, gizarte-mugimendu eta hiritar askok egunero lan egiten dute euskararen erabilera normalizatzeko, eta, horretarako, bere ezagutza eta erabilera bultzatzen dituzte gizartean. Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren arteko koalizioak euskararen normalkuntzaren aldeko lan horrekin bat egiten du, eta zerranda-buruetan hautagai elebidunak jartzen ahaleginduko da.

Administrazioarekin eta irakaskuntzaren, lanaren eta gizarte-harremanen munduarekin harremanetan jartzeko hizkuntza hautatzeko aukera benetako eskubide subjektiboa da hizkuntzalaritzaren arloan. Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren ustez, hizkuntza-eskubide hori aniztasunaren defentsaren beste adierazpide bat da arlo guztietan.

Aniztasunaren balioespen positiboa eta defentsa oinarri demokratikoak direnez, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek geure desberdintasunak errespetatu eta hitzartu egiten ditugu, eta, ikuspegi horretatik bertatik, hiritar guztien hizkuntza eskubidean eta askatasunean oinarritutako hizkuntza-normalkuntza defendatzen dugu.

H) EUSKAL HERRIA EZKERRETIK

Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek sustatutako euskal ezkerak baieztatu egiten du gizartean bertan gehiengoak eratu behar direla indarreko esparru juridiko eta politikoak aldatzeko. Egunen batean, Euskal Herria kontzeptu kultural eta historikoa izatetik kontzeptu politikoa izatera igarotzekotan, hiritar gehienek adostasuna lortu beharko da.

Ezker Batua Berdeak eta Aralar ados daude Euskadiko Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea erabaki politikorako berezko eremu sendotuak direla adieraztean eta bertako prozesuen erritmoa bertako hiritarren erabakien eta indarren arabera izango dela esatean. Bien bitartean, Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek apustu irmoa egiten dugu Euskadiko Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea hurbiltzeko politikaren alde.

I) ENPLEGU EGONKORRA, ETXEBIZITZA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

Ezker Batua Berdeak-ek eta Aralarrek apustu irmoa egiten dugu, gure herriak eta hiriak bizitzeko

eta lan egiteko eremu egokiak izan daitezzen. Horiek horrela, lehendik dauden gizarte-gatazkei ematen diegu erantzuna, gizarte irekiak, tolerantzak, bateratzaileak eta solidarioak ezaugarri bereizgarri dituen aurrerapen-jarreretatik. Aldundiek eta udalek zeregin aktiboa izan behar dute zentzu horretan, eta politikak zein jarduketak sustatu behar dituzte, enplegu egonkorra, iraunkortasuna eta bizigarritasuna bermatzeko.

Hori dela eta, konpromiso publikoa hartu behar da, gure erakundeak hiritarren premia egiazkoenetan eta zuzenenetan inplikatzen. Pertsona guztiez ari gara, inolako salbuespenik egin gabe: gizonak, emakumeak, neskak, mutilak, gazteak eta adinekoak. Izan ere, honako eskari hauek dituzte: babestutako etxebizitzak, eskubideak eskaintzen dituzten enplegu egonkorak, ingurune naturalarekin dauzkagun harremanen babesa eta berreskurapena, genero-indarkeriaren aurkako ekintza eraginkorrak, etorkinak gizarteratzeko politikak, hegoaldeko herrialde txiroei adierazitako elkartasuna...

Toki-administrazioak konpromisoa hartu behar du, lanaren sorrerarako eta lan-kolokatasunaren aurkako gizarte-politikak bultzatzeko; merkataritza biziberritzeko ekimenen bidez ohiko sektoreak defendatzeko; nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren babeserako elikadura-subiranotasunaren irizpideak ezartzeko; bidezko merkataritzako eta garapen solidarioko sareak zabaltzeko; diruan ez oinarritutako gizarte eta ingurumen edukiko trukerako jarduerak bultzatzeko; eta, azken batean, gizarte-ekintza kolektibo eta publikoan oinarritutako garapen ekonomikoan aitzindaria izateko.

Badago etxebizitzaren prezioaren inguruko espekulazioaren bilakaerari aurre egiterik. Horretarako, ezinbestekoa da administrazio publikoen ekintza koordinatua garatzea. Alokaturako etxebizitzetarako zerga-pizgarria hutsik dauden etxebizitzaren kopuru handiari aurre egiteko modu onena. Udalaren lurzoru-ondareen kudeaketa biziak etxebizitza babestuak eraikitzea dauka helburu, eta behar-beharrezkoa da prezio eskuragarriaren etxebizitza-sustapen publikoa handitzeko eta gizarte-alokairurako sustapenak bultzatzeko. Lurzoruaren balioaren gorakadari buruzko udal-fiskalitatearen erreforma sakona konpondu gabeko arazoa da oraindik.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da zerbitzu sozialak publikoak izatea. Beraz, gaur egun osasunaren zein gizarte-laguntzaren arloan oso zabaldua dauden edo kultur zein kirol ekipamenduak edo gazte zein adinekoentzako programak kudeatzen dituzten azpikontratazioak eta pribatizazioak amaitu behar dira behin betiko. Era berean, ikastetxe publikoetako azpiegiturak garatu behar dira,

eta, eskola-orduetatik kanpo, eskola zein udal erkidegoko erreferente kultural eta sozialak izango dira. Bestetik, laneko eta familiako bizimodua bateratu beharra dago, eta, horretarako, behar besteko eskaintza sortu behar da haur-eskola publikoen arloan.

Zentzu berean, Ezker Batua Berdeak-entzat eta Aralarrentzat ezinbestekoa da hirigintza bera gizarte, lurralde, ekonomia eta ingurumen arloko iraunkortasunetik proposatzea eta kudeatzea. Hain zuzen ere, baliabideen eskaria eta kontsumoa arautzeko toki-politiketan oinarritu beharra dago. Eskaintza neurririk gabe handitu beharrean, energiaren, uraren, lurzorua, trafikoaren eta hondakin-kudeaketaren eskariari eutsi behar zaio bete-betean. Beraz, plan metropolitarran eta ondare naturalen katalogoetan egin behar da aurrera, eta, horretarako, udalaz gaineko ikuspegia erabili behar da, lurraldeko berrerekaren bermea delako, azken batean.

Bestetik, honako hauexek ere badira euskal ezkeraren oinarritzko aldarrikapenak: lurzoru publikoaren eta, batez ere, ondare-lurzoruaren gehikuntza edo hiri trinko bezain konplexuaren hirigintza-lehentasuna, familia bakarreko etxebizitzetan eta merkataritza-gune handietan oinarritutako sakabanaketaren eta espezializazio funtzionalaren aldean. Ezker Batua Berdeak-entzat eta Aralarrentzat, gainera, gure erakundeetatik bertatik bultzatu beharreko erronka berria izango da Toki Agenda 21eko prozesuak abian jartzea eta partaidetzan oinarritutako aurrekontuak sustatzea eta ezartzea.

Azkenik, Ezker Batua Berdeak-en eta Aralarren ustez, zenbait programa sustatu behar dira, lurraldea antolatzeko, eremu naturalak babesteko, hondatutako eremuak biziberritzeko, merkataritza indartzeko, motor bidezko mugikortasunari eusteko, energia berriztagarriak bultzatzeko eta hondakinak iraunkortasunez kudeatzeko. Zentzu horretan, bi alderdi politikook jendaurrean adierazi nahi dugu Gipuzkoako hiri-hondakinetarako erraustegien ezarpenaren aurkako, Y Trenbidearen eraikuntzaren aurkako eta tren sozialaren aldeko mobilizazioak babesten ditugula. Era berean, Euskal Herriko ezkerak bere egiten ditu honako gizarte-eskari hauek: energia berriztagarrien erabilera, Garoñako zentral nuklearraren itxiera, Santurtziko eta Pasaiako ikatz eta fuel zentralen itxiera, Bizkaiko super-hegoaldearen gaitzespena, Pasaiako kanpoko portuaren gaitzespena edo harrobietako baliabideen lurralde-agorpenerako programaren gaitzespena.

J) PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO DEMOKRAZIA ETA BATERAKO KUDEAKETA

Guretzat ezinbestekoa da orientazio munizipalistako administrazio-berrantolaketa sakona egitea, hiritarren partaidetzarako bideak zabaltzea eta legeztatzea, udal-kontseiluak instituzionalizatzea eta aurrekontuen programazio finalista, publikoa eta gardena kontrolatzea.

Hiritarren partaidetzarako bideak handitzeko, berritzeko eta zabaltzeko, administrazio-prozedurak arrazionalizatu behar dira, toki-gaiei buruz eztabaidatzeko foro bereziak sortu behar dira, gai bereziak garatzeko aholkularitza-kontseiluak egituratu behar dira, bizilagunek erabaki-organoen aurrean proposamenak egiteko daukaten eskubidea onetsi behar da, erreferenduma edo herri-galdeketa erabiltzeko aukera eskaini behar da lurraldean eragin handia daukaten gaietan, sailen arteko lankidetzarako zeharkako loturak ezarri behar dira administrazio-zereginak helburuetarantz bideratu ahal izateko, ikuskaritza publikoen bidez zehaztutako kudeaketa-helburuen jarraipena eta kontrola egin behar da urtero eta hiritarren partaidetza zuzena ezarri behar da gastuaren udal-aurrekontua egin eta onartzeko orduan.

Horiek horrela, toki-administrazioaren eta hiritarren arteko harremanetarako eredua zehazten dugu. Gainera, ez da hiritarren zerbitzura bakarrik egongo, bere kezkekin lotura zuzena izango duelako eta ebazpenerako ekimenak nahiz aukerak sustatuko dituelako. Horixe bera da gizarte-harremanetarako eredu berria ezarri nahi duen ezker eraldatzailearen eskaintza egokia.

DONOSTIAN, 2007ko OTSAILAREN 15ean